

GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOAREN FUNDAZIOA / FUNDACIÓN DE CAMBIO CLIMÁTICO DE GIPUZKOA

2019 URTERAKO JARDUKETA PLANA

1.- SARRERA

Klima aldaketaren fundazioa 2018an sortu da. Diziiplina anitzeko zentro publiko bat da, eta bere eginkizun nagusia da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari laguntzea, aldaketa klimatikoaren eraginei aurre egiteko gaitasun instituzionala, teknikoa eta soziala sortzen. Betiere, gizarteari eta enpresen sektoreari ezagutzak, balioak eta aberastasuna transmitituz, eta ekonomia berdearen eta lurraldearen ekoeredugarritasunaren testuinguruan beharrezkoa den trantsizio sozioekologikoaren suspertzaile bilakatuz.

2014ko ebaluazio txostenean, klima aldaketari buruzko adituen gobernu arteko taldeak argi eta garbi adierazi zuen klima sistemaren aldaketa ukaezina dela, eta oso litekeena dela horren arrazoi nagusia giza jarduerak sortutako berotegi efektuko gas isurketak izatea. Adituek nabarmentzen dute egungo klima aldaketak eta haren ondorioek mendeak iraungo dutela, nahiz eta orain berotegi efektua sortzen duten gasen isurketa murriztu. Aitzitik, isurketak geldituko ez balira, klima sistemak mundu mailan izango lituzkeen aldaketak are larriagoak izango lirateke, eta sistema sozioekonomikoetan eta naturaletan eragin larriak, orokorrak eta atzeraezinak izateko arriskua handitu egingo litzateke.

Nahiz eta etorkizuneko perspektibak nazioartean hartzen diren erabakien eta ibilbide orrien arabera egon, horiek konpromisoen eta tokian tokiko erabakiekin batera joan behar dute.

2015ean Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia - KLIMA 2050 onartu zuen. Erkidegoko estrategia horrek Autonomia Erkidegoko administrazio desberdinen artean erakundeen arteko koordinazio mekanismoak sustatzea aztertzen du, delako estrategiaren ekimenak ezartzeko eta jarraipena egiteko, eta ezartzen du foru aldundi bakoitzak aldaketa klimatikoari buruzko bere politika eta programak finkatu behar dituela, Garapen Jasangarriaren Lurralde Estrategien bitartez. Testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak klima aldaketari eta eraginkortasun energetikoari buruzko politika eta programak ezarri nahi ditu, garapen jasangarriaren arloko lurralde politikaren testuinguruan; halaber, guztiz bat egiten du, batetik, Europar Batasunaren araudiak eta irizpideek ezarritako izpirituarekin eta mandatuarekin, baliabideen erabilera eraginkorrari dagokionez, eta, bestetik, 2050ean ekonomia hipokarboniko lehiakorra izatera zuzendutako bide-orriarekin.

Horretarako, Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko Gipuzkoa Klima 2050 estrategia idatzi eta kontrastatu du. Foru Aldundiak Estrategia horretan definitzen duen klimaren arloko gobernantza ereduaren barruan, eta politika horiek ahalbidetu eta sustatzeko aurreikusten diren kudeaketa organoen artean (9.2.2. ekintza), Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa dago.

2.- JARDUKETA ETA KUDEAKETA IRIZPIDEAK

Fundazioa izaera publikoko entitatea da, eta bere eginkizuna da, berariaz, Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari laguntzea, Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko estrategia garatzeko, Gipuzkoako Gobernantza Klimatikoan eta Energetikoan ezarritakoari jarraituz. Zehazki, hauek dira fundazioaren funtzioak:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntzea, klima aldaketak Gipuzkoan dituen eraginak aztertzen, horien behaketa egiten eta kontrolatzen.

b) Lan egitea diagnosi zuzen bat lortzeko, eta eragile askoren ekintza dinamizatzea klima aldaketa arintzeko eta inpaktura egokitzeko

c) Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko estrategiaren barruan ematen diren aurrerapenen ebaluazioa eta jarraipena egiten dela bermatzea.

Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:

a) Publizitatea eta gardentasuna, Fundazioaren xede eta jardueri buruzko informazio nahikoa emanez, herritarrek oro har eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.

b) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.

c) Jarduteko jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu, oinarritzat hartuta Garapen Jasangarriaren eta Ekonomia Berdearen printzipioak, eta, horien barruan, Ekonomia Hipokarbonikoa (BEG isurie murrizpena), Ekonomia Zirkularrarena eta Tokiko Ekonomiaarena.

d) Patronatuko kideen zerbitzu-espirtuaren sustapena, bai eta Fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirtuarena ere.

e) Etengabeko lankidetzak leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.

f) Ondarea eta errentak Fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zaintza, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrita.

g) Genero berdintasuna eta euskararen babesa.

Fundazioaren antolaketa, funtzionamendua eta erabakiak hartzeko araubidea bere estatutuetan ezarritakoari doituko zaie, eta, hala dagokionean, Patronatuak onartutako barne araubideko arauak.

3.- 2019KO JARDUKETA PROGRAMA

Fundazioaren lehenengo faseko (2018-2021) 3 lan ardatz nagusiei jarraituz, hau izango da 2019ko jarduketa programa:

1. atala: Klima Aldaketaren Gipuzkoako Dokumentazio Zentroa eta Behatokia

Atal hau zeharkako lerro gisa eta lerro nagusi gisa garatuko da. Bere barruan, lerro hauek garatuko dira:

- BEG isurien eta klima aldaketak lurraldean duen eraginaren monitorizazioa eta jarraipena egitea.
- Klima aldaketak osasunean duen eragina ebaluatzea.
- Arriskuen kartografia eta azpiegitura sare zaurgarrien monitorizazioa eguneratzea eta hobetzea.

Zehazki, programa hauek garatuko dira:

- Estrategiaren adierazle taularen jarraipena.
- Gipuzkoako BEG isurien inbentarioa: Gipuzkoako karbono aztarna.

- Klima aldaketak Gipuzkoan duen inpaktuaren eta eraginaren azterketa, kontrola eta prospekzioa: klima aldaketaren Gipuzkoako zaintza sarea.
- Klima aldaketari aurre egiteko aliantza: Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko ikerketa zentroen, behatokiaren eta eragileen sare bat sortu eta dinamizatzea. Sarea nazioartekoa eta zerbitzu izaerakoa izango da.
- Klima aldaketaren dokumentazio zentroa, arlo honetako programak garatzetik sortzen den ezagutza guztia bildu eta jendearen esku jarriko duena.

2. atala: Circular Reclying Hub eta Renewable Energy Hub

Atal honetan I+G+B sustatuko da, lankidetzak publiko eta pribatuko negozio ereduetan, Gipuzkoa ekonomia berderantz igarotzeko. Horretarako, jarduketak lerro hauek garatuko dira:

- Ekonomia zirkularra eta birziklatzea sustatzea.
- Autokontsumorako energia berriztagarriaren sorkuntza banatua sustatzea.
- Eskualdeetan eta udalerrietan energia ereduaren aldaketa bultzatzea.
- Hirigintzan eta eraikuntzan eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzea.
- Berrikuntza teknologikoa eta energiaren ezagutza sustatzea.
- Ekarpenera egitea erregai fosilen alternatiba diren energia iturriak erabiltzen dituzten ibilgailuetarako trantsizioan.

Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da. Hala ere, esperientzia horietan aktiboki parte hartzeko obligazioa du, eta gizarteari errendimenduak -zuzenak nahiz zeharkakoak, eta objektibagarriak- itzultzeko bektore bat ziurtatu eta kudeatzeko obligazioa, lortu nahi den trantsizio sozioekologikoa ahalbidetzeko finantzatzeko dituen proiektuen eta negozio eredu berrien bidez.

3. atala: Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko herritarrentzako informazio eta heziketa zentroa: Gipuzkoako Klima Aldaketaren Ikasgela

Fundazioaren atal hau (bigarren faserako aurreikusten da) zeharkakoa da. Fundazioak berak nahiz zentroaren atal bakoitzak sortuko dituzten eduki informatibo eta pedagogikoak elikatuko dute ikasgela. Atal honen helburua izango da, batez ere, klima aldaketaren fenomenoari eta klima aldaketak Gipuzkoan eta Gipuzkoaren garapen eremuan izango dituen eraginei buruzko informazioa eskuratzeko egiten diren kontsultei erantzutea eta bisitei arreta ematea (birtualak/aurrez aurrekoak, banakakoak nahiz kolektiboak). Horretarako, jendaurreko arretarako bulego bat edukiko du.

Zentroak informatzea, komunikatzea eta sentsibilizatzea xede duten baliabide pedagogikoak eta komunikaziokoak sortu behar ditu, profil desberdinetako pertsonen zuzenduta: teknikariak/zientzialariak, herritarrak, enpresak eta komunikabideak.

Gipuzkoako Klima Aldaketaren Ikasgela 2022 urterako proiektatzen da, eta Fundazioaren behin betiko egoitzan kokatuko da, Donostiako Eskuzaitzeta poligonoan. Erreferente didaktiko bat izango da klima aldaketaren arloan, eta klima aldaketaren behatokia, garatzen ari diren proiektuak eta startupak, eta gipuzkoarren jardunbide egoki indibidualak nahiz kolektiboak ezagutarazteko aukera ematen duten bitartekoak edukiko ditu, bai espazio presentzialean, bai birtualean ere.

Beraz, eta aurreko ataletan azaldutakoa kontuan hartuta, hauek dira lehenengo urtean garatu beharreko jarduketak nagusiak:

1. 2019ko kudeaketa plan estrategikoa egin eta onartzea, 4 urterako. Plan horretan eguneroko kudeaketak definituko dira, bai patronatuarenak, bai plana ezarri behar duten langile teknikoarenak ere, eta hasierako lehentasuneko lan lerroak ezarriko dira.

- Hala ere, patronatuak birdefinitu egin ditzake, ondoren, bertan jasotako neurriak, edo baita plan osoa ere, fundazioaren helburua hobeto garatzeko asmoz.
2. Fundazioaren jardura agenda definitzea, kudeaketako 4 arlo nagusietan banatuta: Ingurumen hezkuntza edo ikasgela, Behatokia, Circular Hub eta Energy Hub.
 3. Web orriko edukiak dinamizatzea eta newslettera diseinatzea.
 4. Behatokiaren adierazleen estrategia definitzea. Eragileekiko hitzarmenak eta akordioak egitea, sustatu eta ezartzeko.
 5. Renewable Energy HUB dinamizatzea.
 6. Circular Recycling HUB dinamizatzea.
 7. Fundazioaren aliantza sarea, funtsezko eragileekin eta entitate laguntzaileekin.
 8. Klima aldatetaren arloko nazioarteko, estatuko, autonomia mailako nahiz tokiko foro eta sareetan parte hartzea.
 9. Klima aldatetaren arloko sentsibilizazio kanpainak egitea.
 10. Hasierako hedapen ekintzak, eragile publiko eta pribatuekin lotzeko. Fundazioa abian jartzea.

4.- 2019 EKITALDIKO SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

2019KO ADMINISTRAZIO AURREKONTUA / PRESUPUESTO ADMINISTRATIVO 2019

GASTUAK/GASTOS	2019	DIRU SARRERAK/INGRESOS	2019
1. Langileria gastuak (sexuaren arabera)/	350.356,50	1. Zuzeneko zergak/ Zuzeneko zergak	
2. Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak/	632.264,22	2. Zeharkako zergak/	
3. Finantza gastuak/ Gastu finantzarioak		3. Tasak eta bestelako diru sarrerak/ Tasak eta bestelako sarrerak	100.000,00
4. Transferentzia arruntak/		4. Transferentzia arruntak/	882.620,72
5. Kontingentzietarako eta beste ezusteko		5. Ondare sarrerak/	
Eragiketa arruntak, guztira/ Total Operaciones Corrientes	982.620,72	Eragiketa arruntak, guztira/ Total Operaciones Corrientes	982.620,72
6. Inbertsio errealak/	35.000,00	6. Inbertsio errealak besterentzea/	
7. Kapital transferentziak/		7. Kapital transferentziak/	35.000 €
Kapital eragiketak, guztira/ Total Operaciones de Capital	35.000 €	Kapital eragiketak, guztira/ Total Operaciones de Capital	35.000 €
8. Finantza-aktiboak/		8. Finantza-aktiboak/	
9. Finantza-pasiboak/		9. Finantza-pasiboak/	
Finantza eragiketak, guztira/ Total Operaciones Financieras	0,00	Finantza eragiketak, guztira/ Total Operaciones Financieras	0,00
GUZTIRA / TOTAL	1.017.620,72	GUZTIRA / TOTAL	1.017.620,72



5. AURREKONTU PLANTILA 2019

Langile Kodea / código empl.	Lanpostu Izena/ Denominación puesto	Urteko Gordina/ Bruto anual	Urteko Enpresako GS SS Empresa anual	Urteko gordina Bruto anual
1	Zuzendari nagusia/ Director/a general	76.275,00 €	22.882,50 €	99.157,50 €
2	Administraria/ Administrativo/a	30.510,00 €	9.153,00 €	39.663,00 €
3	Finantzako zuzendaria/ Director/a Financiero/a	61.020,00 €.	18.306,00 €	79.326,00 €
4	Teknikoko zuzendaria/ Director/a técnico/a	61.020,00 €.	18.306,00 €	79.326,00 €
5	Teknikaria/ Técnico/a	40.680,00 €	12.204,00 €	213.884,52 €)
	GUZTIRA	269.505,00 €	80.851,50 €	350.356,50 €

AZALPEN TXOSTENA

1. Antolakuntza egitura

GKAFren misioa eta ikuspegia eta lan ardatzak kontuan hartuta, pixkanaka langilez hornitzea dago proiektatuta, 2018-21 urteetan zehar, egotzi zaizkion funtzioak garatu ahal izateko.

2018-19 aldirako Ingurumen Departamentuak egin duen lehenengo azterketatik ondorioztatzen da 5 lanpostu sortu behar direla.

Lanpostuak / Puestos	2018		2019	
	Lanpostu a	Alta hilabetea (Urtarrila 1 / Abendua 12)	Lanpos tua	Alta hilabetea (Urtarrila 1 / Abendua 12)
Zuzendari nagusia	1	9	0	0
Administrariak (idazkaritza)	1	9	0	0
Zuzendari finantzarioa	0	9	1	1
Zuzendari teknikoa	1	9	0	0
Teknikaria	1	9	0	0
Kontratazio berriak	4		1	
Langileria (kontratutako pertsonak guztira)	4		5	

2018rako, aurreikusita dago lehenengo 4 lanpostuen kontratazioari 2018ko irailean ekitea. Horretarako, zuzendari nagusi bat, idazkaritza lanak egingo dituen administrari bat, zuzendari tekniko bat eta BEHATOKIARI dagokion lan ardatzean jardungo den ikerketako teknikari bat kontratatuko dira.

Jarduketa planean ezarritako helburuetara iristeko, hasierako langile horiez gain beste langile bat kontratatuko da 2019an, fundazioaren zuzendari finantzarioa hain zuzen ere.

Laburbilduz:

2018 URTEA: Aurreikusten da proiektua abian jartzea 2018ko irailean.

Jarduerari ekiteko beharrezkoak diren gutxieneko langileak hauek dira:

- Zuzendari nagusi bat
- Idazkaritzako funtzioak dituen administrari bat
- Zuzendari tekniko bat
- Teknikari ikerlari bat

Langile horien soldatak bakoitzaren kategoriaren arabera izango dira, antzeko beste fundazioetakoekin parekoak

2018 ekitaldian soldatetarako beharrezkoa den zenbatekoa guztira 88.833,33 € euro da, gehi karga sozialak.

2019. URTEA: Aurreikusita dago langile gehiago kontratatzea, egin behar den lanaren arabera. Guztira **langile 1** gehiago kontratatuko da, lanpostu honetarako:

- Zuzendari finantzario bat.

2019a Fundazioaren jardun funtzionalaren lehenengo urtea izango da, eta, horregatik, ezinbestekoa da zuzendari finantzario bat kontratatzea, arlo ekonomiko eta finantzarioaz arduratzeko. Guztira, **5 profesional** izango ditu kontratatuta Fundazioak. 2019 ekitaldian soldatetarako beharrezkoa den zenbatekoa guztira 350.356,50 € € euro da, gehi karga sozialak.

2. Gastu arruntak eta zerbitzu gastuak

KPI gehikuntzak hartu dira kontuan, eta zenbait kasutan aurrekontu partida batzuen gehikuntza plantilan emandako gehikuntzari lotu zaio.

SAILKAPEN EKONOMIKOA	Descripción	2018	2019
1. kapitulua: Langileria gastuak		88.833,33 €	350.356,50 €
13. Lan kontratadun langileak	Soldata gordina	68.333,33 €	269.505,00 €
16. Entitatearen kontura doazen kuota, prestazio eta gastu sozialak:	Gizarte Segurantzak	20.500,00 €	80.851,50 €
2. kapitulua: Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak		251.700,00 €	632.264,22 €
20. Errentamenduak		56.000,00 €	85.428,00 €
	Lokala alokatzea	56.000,00 €	85.428,00 €
21. Konponketak, mantentze eta zaintza lanak		15.620,00 €	25.060,00 €
	Lokala mantentzea	- €	4.000,00 €
215. Informazio prozesuetarako ekipoak konpontzea eta artatzea	Inpresioa	4.320,00 €	12.960,00 €
	Webgunea diseinatu eta martxan jartzea	9.000,00 €	5.000,00 €
	Dokumentuen datu basea ezarri eta webgunea egokitzea	1.500,00 €	1.500,00 €
	Mailing zerbitzuak	800,00 €	1.600,00 €
Bulegoko materiala.		2.000,00 €	7.322,40 €
221. Hornidurak.		3.000,00 €	6.000,00 €
	Erregai gastuak, energia, ura,...	3.000,00 €	6.000,00 €
222. Komunikazioak		6.180,00 €	19.453,82 €
	Interneteko komunikazio linea	1.800,00 €	4.380,48 €
	Telefonia mugikorra	1.080,00 €	7.029,50 €
	Kanpoko hosting zerbitzuak	1.800,00 €	4.393,44 €
	SW zerbitzariak eta backup	1.500,00 €	3.650,40 €
Askotariko gastuak	Networking: Estatuko eta nazioarteko sareetara atxikitzea	6.000,00 €	20.000,00 €
227. Profesional edo enpresa espezializatuak egindako lanak.		155.300,00 €	429.000,00 €
	Aholkularitza/Auditoretza	34.000,00 €	84.000,00 €
	2018-2021 aldirako plan estrategikoa definitzea	20.000,00 €	40.000,00 €
	ISO9001 ziurtagiria	6.000,00 €	12.000,00 €
	Klima alaketaren zaintza	- €	12.000,00 €
	Isurpenen inbentarioa	- €	10.000,00 €
	Jardueren urteko memoria idatzi eta argitaratzea	8.000,00 €	10.000,00 €
	Marketina eta publizitatea	31.500,00 €	66.000,00 €
	Komunikazioa: Irudi korporatiboa definitzea.	8.500,00 €	6.000,00 €
	Zentroaren aurkezpen publikoa.	8.000,00 €	10.000,00 €
	Enpresa inguruetan ekitaldiak egitea	- €	10.000,00 €
	Komunikabideetan marketin kanpainak abian jartzea	15.000,00 €	25.000,00 €
	Gutxienez erreferentziazko ekitaldi bat antolatzea	- €	15.000,00 €
	Kanpoko zerbitzuak	89.800,00 €	279.000,00 €
	Kanpoko laguntza teknikoko zerbitzuak	44.800,00 €	84.000,00 €
	Kanpoko laguntza juridikoko zerbitzuak	9.000,00 €	15.000,00 €
	Sentsibilizazioa eta prestakuntza	- €	6.000,00 €
	Prestakuntzan parte hartzea	6.000,00 €	24.000,00 €
	Talentua sortzea	- €	
	Hitzarmenak hirugarrenekin	30.000,00 €	150.000,00 €
23 – Zerbitzuak ematearen kalte-ordainak	Dietak, egonaldiak, lokomozioa eta garraioak	7.600,00 €	40.000,00 €

Lan ardatzak kontuan hartu dira, eta baita atal bakoitzean aurreikusitako ekintza lerroak, lerro berrien aurreikuspena, ikasgelaren irekiera eta jendaurreko arreta zerbitzua.

Xehetasunez aztertzen badugu, eta kontuan hartuta alokairuaren gehikuntza eta bulego materialari, hornidurei eta komunikazioei dagozkien kapituluena, berez ez gaude gehikuntza baten aurrean, 2018koarekin alderatuta; izan ere, zenbateko bera da, baina urte natural osoa hartzen duena. 2018tik 2019ra kontuan hartu behar diren gehikuntzak hauek dira:

- Konponketen kapitulua 2.000 eurotik 7.322,40 eurora igoko da, batez ere web orria dinamizatzeko beharrezkoak diren lanak egiteko, edukiz hornitzeko eta newslettera egiteko.
- Gai beraren inguruko beste zentro edo eragileekin lortu beharreko aliantzak eta sareak ezartzeko beharrezkoa den networkinga egiteko aurrekontua 6.000 eurotik 20.000 eurora igoko da.
- Profesionalek egindako lanen aurrekontua 155.300 eurotik 429.000 eurora igoko da. Lan horiek honakoak hartzen dituzte:
 - o Plan estrategikoaren definizioa.
 - o Fundazioaren beraren kalitate eta ingurumen ziurtagiriak.
 - o Jarraipenerako adierazleak eta inbentarioak egitea, Behatokian bertan.
 - o Sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak, eta Ingurumen Ikasgelaren garapena bera.
 - o Klima aldaketaren arloko beste eragile instituzionalekiko eta zentro teknologikoekiko lankidetzak hitzarmenak egitea.

Funtsezkotzat jo da aurrekontuari dagokionez pisu handiagoa ematea 227 partidari: profesionalek edo enpresa espezializatuak egindako lanak. Horrela bermatu nahi da Fundazioaren 3 ataletako bakoitzarentzat ezarritako helburu estrategikoak betetzea.

Era berean, funtsezkoa da Fundazioko lantaldeari behar beste diruz hornitutako partidak esleitzea, proiektu europarrak ixtea bermatzeko eta enpresekin lankidetzak harremanak ezartzeko, I+G+B sustatzeko.

3. Guztizko gastuen laburpena

Lan ardatzak kontuan hartu dira, eta baita atal bakoitzean aurreikusitako ekintza lerroak, lerro berrien aurreikuspena, ikasgelaren irekiera eta arreta zerbitzua.

SAILKAPEN EKONOMIKOA	2018	2019
1. kapitulua: Langileria gastuak	88.833,33 €	350.356,50 €
2. kapitulua: Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	251.700,00 €	632.264,22 €
20. Errentamenduak	56.000,00 €	85.428,00 €
21. Konponketak, mantentze eta zaintza lanak	15.620,00 €	25.060,00 €
220. Bulegoko materiala.	2.000,00 €	7.322,40 €
221. Hornidurak.	3.000,00 €	6.000,00 €
222. Komunikazioak	6.180,00 €	19.453,82 €
226. Askotariko gastuak:	6.000,00 €	20.000,00 €
227. Profesional edo enpresa espezializatuak egindako lanak.	155.300,00 €	429.000,00 €
23. Zerbitzuagatikoko kalte-ordainak Dietak, egonaldiak, lokomozioa eta garraioak	7.600,00 €	40.000,00 €
6. kapitulua: Inbertsio errealak	44.700,00 €	35.000,00 €
SARREREN AURREKONTUA	SARRERAK GUZTIRA:	
	385.233,33 €	1.017.620,72 €

Gastu orokorren guztizkoari buruzko ohar hauek egin behar dira:

- 2018 Langileria gastuen partida (1. kapitulua) nabarmen txikiagoa da (% 23,06) ondasun eta zerbitzuen gastu arruntena baino (2. kapitulua, % 76,94), bereziki profesionalek edo enpresa espezializatuek egindako lanen partida kontuan hartuta. Izan ere, 2018tik jada bizkortu egin nahi da helburuak lortzearekin lotutako guztia, eta kontuan hartuta hasiera batean 4 langile besterik ez direla egongo, kanpo kontrataziora jo beharko da. Are gehiago kanporatutako zerbitzuak ez direnean Fundazioak berak behar dituenak soilik. Izan ere, zerbitzu horiei gehitzen zaizkie presentzia instituzionala eta oihartzun mediatikoa behar duen edozein jardura abian jartzeak eskatzen dituen zerbitzuak, nahi badugu merkatuko targetek erraz identifikatzea jardura hori: enpresek, udal erakundeek eta gizarteak oro har. Izan ere, hori da, azken buruan, Fundazioak klima aldaketaren aurkako borrokaren inguruko kontzientziazio soziala lortzeko jarraitu behar duen ardatz estrategikoetako bat.
- 2019an langile bat gehiago kontratatuko da: zuzendari finantzarioa. Horrela, guztira 5 lanpostu egongo dira.

Beraz, estrategikoki funtsezkoa da langileen kontratazioa indartzea (1. kapitulua), Fundazioaren helburuak betetzeko, eta bermatzeko, batetik, ongi garatzen direla Fundazioaren ardatzen 3 ataletako lan lerroak eta, bestetik, aurrekontu oreka lortzeko beharrezkoak diren diru-sarrerak eskuratzeko aukera emango duten proiektuen zorro bat lortzen dela.

Aurrekontuko partida garrantzitsuak planifikatu dira hirugarrenek egindako lan profesionaletarako eta dietetarako, Fundazioaren helburu ekonomikoetako bat baita adierazle strategikoak betetzea, eta, horretarako, diru-sarrerak aurreikusten dira, batez ere esparru europarretik. Diru-sarrera horiek ondorengo puntuan azalduko dira.

4. Diru-sarrerak eta finantzazioa

Planteamendu bat egiten da: Gipuzkoako Foru Aldundia izatea beharrezko ekarpenak egingo dituen, bera baita Fundazioaren patronatukide nagusia.

Zentzu horretan, proiektatu da hasieran 340.533,3 euroko ekarpena egitea 2018. urterako. Kopuru horrekin aurrekontu beharren % 100 estaliko da. Horrela, hori izango da Fundazioak 2018an izango duen **diru iturri bakarra**. 2019rako, berriz, 552.620,72 euroko ekarpena aurreikusten da.

DIRU SARRERAK	Erakarpena	
	2018	2019
Diru sarrerak enpresei emandako zerbitzuengatik	0	100.000
DIRU SARRERAK ENPRESEI EMANDAKO ZERBITZUENGATIK	0	100.000
Babesleak / Enpresa pribatuen transferentziak	0	50.000
BABESLEEN DIRU SARRERAK	0	50.000
EUROPAKO PROIEKTUAK	0	280.000
Guztira	0	430.000
DEFIZIT ARRUNTAREN EKARPENA Aurreikusitako defizit arrunta	340.533,33 €	552.620,72 €
GFAREN ekarpenak	% 100 €	552.620,72 €

2019rako, 2018an ez bezala, aurreikusten da Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumen Departamentuaren bidez, 2019ko aurrekontu beharren % 50 finantzatzea gutxienez, eta, hortik aurrera, Aldundiaren parte hartzea murrizten joatea, pixkanaka, urteko ekarpenak 550.000 euroren bueltan mantenduz. Horrela, Fundazioa behartuta egongo da proiektu europarrak eta babesleak lortzera, gastu guztiei aurre egin ahal izateko diru sarrerak eskuratzeko, eta xede horrekin jardungo da gogor lanean.

Hau da lortu nahi den finantzazioaren laburpen eskema:

	2018		2019	
	%	€	%	€
Gastua+inbertsioa aurrekontu estimatua eurotan		385.233		1.017.621
Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena	% 100,0	385.233	% 57,7	587.621
Beste administrazioen ekarpenak	% 0,0	0	% 0,0	0
Enpresak (zerbitzuak enpresei)	% 0,0	0	% 9,8	100.000
Babesle pribatuak	% 0,0	0	% 4,9	50.000
Europako proiektuak	% 0,0	0	% 27,5	280.000
Diru-sarreraren aurrekontu osoa eurotan	% 100,0	385.233	% 100,0	1.017.621

Azpinarratu behar da bereziki garrantzitsua dela Fundazioak proiektu europarrak ixteko ahalegina egitea eta indarrak horretara bideratzea, 2019an diru-sarreraren % 27,5 inguru iturri horietatik lortzea aurreikusten baita. Erabaki estrategiko horrek inplikatzan du bidaia asko egin beharko direla atzerrira, enpresa networkinga sustatzeko, enpresekin lankidetzan ikerketa lerroak garatzeko aukera emango duten espazioak sortzeko, eta ondoren I+G+B arloan berrinbertitu ahal izango diren itzulkin ekonomikoak lortzeko.

Garrantzitsua da, halaber, «Enpresei zuzendutako zerbitzuak» eta «Babesleak/enpresa pribatuen transferentziak» arloekin lotutako proiektuak indartzea. Horretarako, ezinbestekoa izango da Fundazioak berak Gipuzkoako enpresa sareari estrategikoki lotuta dauden planei heltzea, lehenbailehen, emaitzetan gehikuntza nabarmena lortzeko. Proiektu europarrek ekarriko dituzten diru-sarrerez gain beste diru-sarrera batzuk ere edukitzea bermatzeko, funtsezko ardatza da inguruko enpresekin spin-offak abian jartzea, eta ezagutzaren transferentzia sustatzea, Gipuzkoako enpresa sarearen zerbitzura egongo den I+G+B arloko entitate sustatzaile gisa jarduteko. Horrela, diru-sarrerak lortzeaz gain, Fundazioa sortzearen helburu nagusietako bat ere beteko da.

Horri dagokionez, Fundazioak gaitasun eta kaudimen tekniko nahikoa eduki behar du, negozio aukerak identifikatzeko, eta klima aldaketaren aurkako borrokaren inguruan Gipuzkoako hazkunde produktibo eta industrial bizkortzen lagunduko duten proiektuak eta ikerketa lerroak garatzeko. Era berean, lurraldeko enpresei laguntzeko gai izango da, negozioen dibertsifikazioa lortzeko. Horregatik, HUBak dira enpresen arteko harremanak ezartzeko plataformarik egokiena, horrela sortu baitaitezke spin-offak, joint ventures izenekoak eta enpresei zerbitzua emateagatiko diru-sarrerak ekar ditzakeen beste edozein lankidetz modalitate. Kalkulatzen diren diru-sarrerak dira 40-60 k € spin-off bakoitzeko -enpresa sustatzailearen izaera eta kaudimena gorabehera-. Kopuru horrekin ordaindu behar dia, besteak beste, aukerak eta ezagutzak transferitzeko eta/edo lagatzeko mentoring teknikoak.

5. Aurrekontuaren laburpena: gastuak guztira eta diru-sarrerak guztira

Azpinarratu behar da aurrekontuko partidak gutxi gorabeherakoak direla. Hori horrela, Fundazioak aurrera egin ahala, errealitatera egokitzen joango dira partidak, uneoro bermatuta egon dadin aurrekontu oreka, eta desbideratze negatiboak saihesteko.

Desbideratze negatiboak gerta daitezke edo plan ekonomiko eta finantzarioan jaso ez diren aparteko gastuak egon direlako, edo, edozein jardueratan gerta daitekeen bezala, proiektuak itxi ez direlako, babesle pribatuak lortu ez direlako, edo 2019tik aurrera planifikatuta dauden bestelako zerbitzuak eman ez direlako.

Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren laburpen taulan ikusi daitekeen bezala, desbideratze positibo bat kalkulatzen da, hori baita Fundazioaren kudeaketako helburu nagusietako bat.



SAILKAPEN EKONOMIKOA		2018	2019
1. kapitulua: Langileria gastuak		88.833,33 €	350.356,50 €
2. kapitulua:- Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak		251.700,00 €	632.264,22 €
20. Errentamenduak		56.000,00 €	85.428,00 €
21. Konponketak, mantentze eta zaintza lanak		15.620,00 €	25.060,00 €
220. Bulegoko materiala.		2.000,00 €	7.322,40 €
221. Hornidurak.		3.000,00 €	6.000,00 €
222. Komunikazioak		6.180,00 €	19.453,82 €
Askotariko gastuak:		6.000,00 €	20.000,00 €
Profesional edo enpresa espezializatuak egindako lanak.		155.300,00 €	429.000,00 €
23. Zerbitzuagatik kalte- Dietak, egonaldiak, lokomozioa eta garraioak		7.600,00 €	40.000,00 €
6. kapitulua.- Inbertsio errealak		44.700,00 €	35.000,00 €
622.Eraikinak eta beste eraikuntzak.		20.000,00 €	2.000,00 €
64. Altzariak eta lanabesak		16.100,00 €	14.000,00 €
65. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak		8.600,00 €	19.000,00 €
SARREREN AURREKONTUA SARRERAK GUZTIRA:		385.233,33 €	1.017.620,72 €
SAILKAPEN EKONOMIKOA		2018	2019
3. kapitulua: Tasak eta bestelako sarrerak		- €	100.000,00 €
34. Zerbitzuen prestazioa (zerbitzuak enpresei)		- €	100.000,00 €
4. kapitulua: Transferentzia eta diru laguntza arruntak:		340.533,33 €	882.620,72 €
420.Gipuzkoako Foru Aldundiaren transferentziak		340.533,33 €	552.620,72 €
471.Enpresa pribatuen transferentziak (babesleak)		- €	50.000,00 €
49. Kanpoko transferentziak (proiektu europarrak)		- €	280.000,00 €
7. kapitulua: KAPITAL TRANSFERENTZIAK		44.700,00 €	35.000,00 €
72. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kapital transferentziak		44.700,00 €	35.000,00 €
73. Donostiako Udaletik kapital transferentziak		-€	-€
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		385.233,33 €	1.017.620,72 €
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		385.233,33 €	1.017.620,72 €